

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Uztailaren 1etik aurrera mendeko pertsona guztiek laguntzak jasoko dituzte, haien gradua edozein izanda ere

Alli kontseilariak Gizarte Ongizateko eta Desgaitasuneko kontseiluen buru izan da, eta bertan aldaketa hori aplikatzeko beharrezko txostenak onartu dira

Viernes, 15 de mayo de 2015

Datorren uztailaren 1etik aurrera, gradu moderatuko mendekotasuna duten pertsonak (arinena) mendekotasunari arreta emateko sisteman aurreikusitako prestazio- nahiz zerbitzu-sistemaz baliatuko ahalko dira; oraingoz, mendekotasun handienekoak eta mendekotasun larriak dituztenak baliatu daitezke bakarrik.



Alli kontseilaria, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseiluko bilkuraren buru.

Hala ondorioztatzen da Gizarte Politiken Departamentuak egindako arauditik. Araudi horrek Nafarroako Gizarte Ongizateko Kontseiluaren eta Nafarroako Desgaitasun Kontseiluaren aldeko txostena jaso du. Bi horiek gaur goizea bildu dira, Iruñean, Iñigo Alli kontseilaria buru zela.

Mendekotasunari arreta emateko sistema zabaltze hori Mendekotasun Legea aplikatzeko egutegian ezarrita dago (2006koa da). Laguntza horiek baliatzen laguntzeko, Nafarroako Pertsonen Autonomiarako Agentzia balorazio moderatua duten mendeko pertsona guztiekin harremanetan jarriko da datozen egunotan.

Gaur egun, Nafarroako Pertsonen Autonomiarako Agentziak emandako datuen arabera, 13.254 nafarrek mendekotasuneko pertsona modura baloratu dira. Haietatik, 3.347 mendekotasun handikoak (gehieneko gradua), 5.097 mendekotasuna larria dutenak (gradu ertaina) eta 4.810 moderatuak (gradu arinena).

Prestazioak eta zerbitzuak

Mendeko moderatuak honako hauek baliatuko ahalko dira: etxean egoteko laguntza ekonomikoa; eguneko arreta eta egokitutako garraioa; larrialdiko telefono-zerbitzua; udalaren etxez etxeko laguntza-zerbitzua; laguntza pertsonala eta arreta goiztiarreko zerbitzua.

Zenbatekoei dagokienez, hilean 180 eta 60 euro arteko laguntza ekonomikoa jaso ahalko dute familiaren ingurunean zaintzeko eta zaintzaileei laguntzeko; 762,90 eta 103,44 euro arteko laguntza, eguneko-zentroetan arreta emateko ; eta 509,67 eta 203,87 euro artekoa, laguntzaile pertsonalerako.

Nafarroako Gizarte Ongizarteko eta Mendekotasuneko kontseiluak aholkularitza, partaidetza eta kontsultarako funtzioak dituzten organo aholku-emaileak dira. Gizarte Politiken kontseilaria da buru, eta honako erakunde hauek parte hartzen dute bertan: Nafarroako Gobernua, toki-erakundeak, gizarte-erakundeak, eragile ekonomikoak eta unibertsitateko eragileak.



Nafarroako Desgaitasun Kontseiluaren bilkura, Alli kontseilaria buru dela.